



# IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUA



# AURKIBIDEA

1. Testuingurua.....	3
2. Identitatea.....	5
3. Hezkuntza helburuak.....	6
4. Erabaki curricularrak.....	7
5. Elkarbizitza erabakiak.....	10
6. Hizkuntza esparruko erabakiak.....	13
7. Berrikustea eta komunikazioa.....	19

## 1. Testuingurua: ikastetxearen eta ingurunearen azterketa

**Herria:** Sestao, Bizkaia.

**Biztanleria:** 27.775 biztanle (2024) ditu herriak. Demografikoki oso herri anitza da Sestao, biztanleriaren %38a ez baita Euskal Herrian jaiotakoa (%21 Espainako beste probintzia batean jaiotakoa eta geratzen den %17a beste herrialde baten jaiotakoa).

**Jarduera ekonomikoa:** zerbitzuen sektorea da gaur egun nagusi herrian baina industriak pisu garrantzitsua dauka ere. Nekazaritza eta abeltzaintza, aldiz ez dute garrantzirik herriko garapen ekonomikoan. Arlo honetan ezinbestekoa da herriko langabezia tasa aipatzea, %15,3koa (2024) Bizkaian dagoen langabezia tasa orokorraren (%7,1) bikoitza baino altuagoa

**Zerbitzuak:** Udal Liburutegia, Musika Eskola, Kiroldegiak, Zaharren egoitza, Osasun Zentroak Turismo Bulegoa eta Gizarte Zerbitzuak.

**Aurreko historia laburra:** industriaren garrantzia zela eta 50-80 hamarkaden tartean Sestaoko biztanleria izugarri handitu zen 40.000 biztanle izatera helduz. Altos Hornos de Vizcaya enpresaren itxierak eta orokorrean industriaren beherakadak eragin handia izan zuen populazioan eta, batez ere, langabezia tasan. Gainera, azkeneko urte hauetan, faktore ezberdinengatik ere beste herrialde batzuetatik etortzen ari den migrante kopuruak paisaia demografikoa aldatu du erabat.

### **Ikastetxea (2024):**

- Hezkuntza eskaintza: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza.
- Hizkuntza ereduak: D ereduak.

Ikasle kopuru osoa: 394				
Haur Hezkuntza: 115		Lehen Hezkuntza: 274		Supergela: 5
HH2: 22	(2 lerro)	LH1: 43	(2 lerro)	5
HH3: 24	(2 lerro)	LH2: 55	(3 lerro)	
HH4: 37	(2 lerro)	LH3: 48	(3 lerro)	
HH5: 32	(2 lerro)	LH4: 39	(2 lerro)	

	LH5: 47	(3 lerro)	
	LH6: 42	(2 lerro)	

Hizkuntza proiektua berrizterakoan (2024-2028), neurtuz tresna erabiliz, hurrengo datu soziolinguistikoak jaso ditugu.

- Ikasleen hizkuntza ohiturak eta jatorria:
  - o Ama hizkuntza euskara dutenak: %15,42.
  - o Ama hizkuntza gaztelera dutenak: %78,41.
  - o Bestelako ama hizkuntza dutenak: arabiera ( %12,33) , ingelesa (%3,96), wooloferak(%2,2) eta beste batzuk.



## 2. Identitatea. Nor gara? Printzipioak, balioak eta identitate ezaugarriak.

Bizkaian, ezker aldean kokatutako D ereduko ikastetxeko publikoa gara. Gure nortasunaren aldarri nagusiak eta balioak hauek dira:

- **Euskal kulturaren babesa:** eskola euskaldun bat aldarrikatzen eta defendatzen dugu, euskara ardatz duena eta euskal kulturaren transmisioan sakontzen duena.
- **Aniztasunarekiko errespetua:** gizartearen islada den ikastetxe anitz bateko kide garen heinean, aniztasun horrekiko errespetua eta bizikidetzaren osasuntsua sustatzen dugu.
- **Ikasleen arlo emozionalaren zainketa:** umeen egoera emozionalaren zainketa lehenesten dugu, garapen pertsonalaren eta akademikoaren oinarria da eta.
- **Kalitatezko hezkuntza akademikoa:** konpetentzietan oinarritutako hezkuntzan sinisten dugu, gure ikasleen arrakasta akademikorako bidean.
- **Berrikuntza pedagogikoa:** metodologia tradizionalen eta berritzaileen ekarpenak kontuan hartuta berrikuntza pedagogikoa eta etengabeko formakuntza sustatzen dugu.
- **Hezkuntza komunitatearen eraikuntza:** ikastetxeko kideen, familien eta herriko beste eragile batzuen arteko harreman estua bultzatzen dugu eskola publiko eta irekia eraikitzeko.



### 3. Helburuak. Zer lortu nahi dugu? Zein da gure ametssetako eskola?

Eskola **inklusiboa**, **berritzailea** eta ikasle bakoitzaren **garapen integralarekin konprometitua** amesten dugu, hezkuntza-komunitateko kide guztiek **parte hartzeko**, **errespetatzeko** eta **lankidetzan aritzeko** espazioa aurkituko duten tokia. Ingurune seguru eta bizigarri bat eraiki nahi dugu, non haur eta gazte bakoitza **baloratua**, **entzuna** eta **motibatua sentituko** den bere talentuak esploratzeko eta bere **potentzial handiena garatzeko** bere bizitzako alderdi guztietan. Ezagutzak transmititzeaz gain, **pentzamen kritikoa**, **sormena**, **erresilientzia** eta **enpatia** bezalako funtsezko trebetasunak sustatzen dituen eskola bat bistaratzen dugu, gure ikasleak etengabe eboluzionatzen ari den mundu baten **erronkei aurre egiteko** prestatuz.

Gure helburua **metodologia aktiboak** eta **pertsonalizatuak** integratzea da, ikasle bakoitzaren interesei, erritmoei eta ikasteko estiloari erantzungo dietenak, eta haien bizitzekin eta esperientziekin benetan konektatuko duen hezkuntza sustatuko dutenak. **Teknologia modu etiko** eta **arduratsuan** txertatuko duen ikastetxea nahi dugu, ez helburu gisa berez, baizik eta ikaskuntza aberasteko eta ezagutzarako eta munduarekin konektatzeko aukera berriak zabaltzeko tresna gisa.

Gainera, gure eskola balioetan oinarritutako hezkuntzan erreferente izatea nahi dugu, **berdintasuna**, **aniztasuna** eta **elkarrekiko errespetua** sustatzeko. **Herritar kontziente** eta **konprometituak** prestatu nahi ditugu, beren ingurune sozial eta ingurumenekoaz interesatuko direnak eta gizarte justuago, inklusiboago eta iraunkorrago bat eraikitzen aktiboki laguntzeko prest egongo direnak. Gure ametssetako eskola honetan, **ikaskuntza etengabeko esperientzia** da, hezkuntza-komunitateko eragile guztiek partekatzen dutena, eta garapen pertsonala eta akademikoa hazkunde emozional eta sozialarekin batera doa. Azken batean, inspiratuko, eraldatuko eta lagunduko duen eskola sortu nahi dugu, ikasle bakoitzaren bizitzan eta gizartean **arrasto positiboa** eta **esanguratsua** utziko duen hezkuntza-komunitatea.



## 4. Erabaki curricularrak

### 4.1. Metodologia

Eskolaren metodologia eraldaketa prozesuan dago murgilduta duela urte batzuk. Hezkuntza Sailak sustatutako proposamen metodologiko berriak eta indarrean dagoen Hezkuntza Lege Berria izan dira eraldaketa prozesu hau sustatu duten faktore nagusiak. Hauek dira eskolako ildo metodologiko nagusiak:

Haur hezkuntzan		
<b>Ekosistema hezitzaileak eta Mugimendu autonomoa (Protokoloak)</b>  <b>Ekosistemen Programazioak aberastu</b>	<b>Etap</b>  <b>osoa</b>	2013-2014 ikasturtean hasita, eskarmentua dugu metodologia honetan. Ekosistemak antolatuta daude eta pedagogikoki trebea den talde eragile txiki bat dugu. Interinitateak, kalte egiten dio metodologiaren finkapenari. Hezitzaile taldearen eskuhartze estiloa bateratua izateko, etaparen artean erabakitako protokoloak bukatzeke daude. Protokolo hauetan hezitzaileak egoera batzuen aurrean izan beharreko jarrerak, arauak eta marra gorriak zehazten dira.
<b>Hizkuntza indartzeko saioak (ahozkotasuna, irakurzaletasuna, euskara)</b>	<b>Etap</b>  <b>osoa</b>	Eskolaren jatorrizko hizkuntzen aniztasuna ikusita, euskara indartzeko jarduerak sistematizatu eta programatzen ari gara. Proposamen hauek, asanblada momentuetan zein haurrak mugimendu autonomoan dabilzatenean aurrera eramaten dira. Talde handian zein txikietan.
<b>Trebetasun fonologikoen</b>		Haur hezkuntzan irakurketa-idazketa prozesuaren akonpainamendua zelan egiten den aztertu eta hausnartu ondoren,

<b>sistematizazioa eta graduazioa</b>  <b>(Irakurketa-idazketaren akonpainamendua)</b>		trebetasun fonologikoak ezagutu eta sistematizatzen ari dira. Adin tarte bakoitzean eginbeharrekoak zehaztu eta programatze bidean daude.
Lehen Hezkuntzan		
<b>Ikas egoerak</b>	<b>Etap osoa</b>	2023-2024 ikasturte bukaeran etapa osorako ikas-egoeren bilduma osatzea lortu dugu. Hurrengo ikasturteei begira helburua horiek elikatzea eta aberastea da, ebaluazioari arreta berezia eskainiz.
<b>INNOVAMAT</b>	<b>1. eta 2. zikloak</b>	2023-2024 ikasturtean, matematika era progresibo eta zentzudun baten jorratzeko asmoz INNOVAMAT erabiltzeko erabakia hartu zuen klaustroak.
<b>Tailerrak</b>	<b>1. zikloa</b>	2018-2019 ikasturtetik aurrera HH eta LH etapen arteko zubia osatzeko planteamendu hau martxan jarri zen. Forma hartzen joan da azken urteetan zehar eta momentu honetan finkatuta dago.
<b>Talde elkarreragileak</b>	<b>3. zikloa</b>	2022-2023 ikasturtean hasita asteen behin talde elkarreragileekin lan egiten da 3. zikloan.

## 4.2. Ebaluazioa

Ebaluazioaren arloan aurrerapenak egiten ari dira. Honako hauek dira azpimarragarrienak azken urteetan.

Ikasleen ebaluazioari dagokionez ebaluazio kompetentzial baterako pausak ematen gabiltza. HHn, boletin deskriptiboak egiteko prozesuan hasi gara (23-24 ikasturtea). Boletin deskriptiboetan erabiliko diren item-ak Curriculumeko ebaluazio irizpideekin lotuta daude, taula baten zehaztuta. LHn boletineko itemak birplanteatu egin dira (23-24 ikasturtea) eta dokumentu batean adierazi da zein den horien eta Curriculumeko ebaluazio irizpideen arteko lotura. Horrez gain, maila bakoitzeko irakasle taldeak parte hartzen duen bilerak antolatzen dira lehenengo, bigarren eta hirugarren hiruhilabeteetan dagozkien aktekin. Beste alde batetik ziklo bakoitzean lantzen diren ebaluazio irizpideak programazioetan zehaztuta daude (programazioen berrizte prozesuan murgilduta gaude).

Ebaluazioaren arloan salto kualitatibo bat sustatu nahian irakasleen jarduna errazteko eta egiten diren jardueretik hausnarketa bultzatzeko tresnen diseinuarekin lanean egon gara. Arlo horietan eskolako irakasle koaderno osatu da LHn (23-24 ikasturtea) eta ikasleei buruzko deboluzio bilerak egiteko irakasle koaderno HHn (24-25 ikasturtea). Tresna horien beste helburuetako bat egiten diren autoebaluazio, koebaluazio eta heteroebaluazio jardueren arteko oreka bat lortzea da, lehenengo biei bultzada emateko asmoz.

Irakasleek euren jarduna autoebaluatzeko tresnak eta jarduerak planteatzen dira baina gehiago proposatzeko beharra aurreikusten da. Horrez gain, eskolan aurrera eramaten diren proiektu eta ekimen guztiak ebaluatzen dira batzorde edo koordinatzaile bakoitzak erabakitako tresna egokituarekin.

## 5. Hizkuntzen esparrua

Hizkuntza esparruan hiru dokumentuk arautzen dute eskolako hizkuntzen trataera: Hizkuntza Proiektua, Irakurketa Estrategia eta hizkuntza programazioak.

### 5.1. Hizkuntza komunikaziorako konpetentzia eta konpetentzia eleaniztuna garatzeko estrategiak

Eskolan proposamen ezberdinetatik bilatzen da Hizkuntza Komunikaziorako Konpetentzia eta Konpetentzia Eleaniztunaren garapena:

- Eskolako dokumentazioari dagokionez ardatza den Hizkuntza Plana (2024-2028) sortu egin da 23-24 ikasturtean. Gainera 24-25 ikasturtean Irakurketa Estrategia eta hizkuntza programazioen berrikoa egitea aurreikusten da.
- Liburutegiaren erabilera: azken urteetan ekimen ezberdinak egin diren arren, liburutegiari bultzada handiagoa emateko beharra somatzen dugu. Eskolako egunerokotasunean patioetan liburutegia irekita egoteko aukera eta irakurketa tarteetan liburutegia ardatza izateko asmoa dugu.
- HHko edukien programazioan zehaztuta dago zein hizkuntza arloko oinarrizko ezagutzak lantzen diren. Horiek lantzen dira ekosistemen barruan planteatzen diren proposametan, mugimendu autonomoaren funtzionamenduaren barruan. Gainera, hizkuntza lantzeko saio bereziak proposatzen dira asanblada formatuan.
- Ikas-egoeren egitura: ikas-egoera guztiak dauzkate hizkuntzarekin lotuta doazen bi konpetentzia hauek lantzeko jardura egituratuak. 23-24 ikasturtean ahozkoasuna lantzeko proposamen zehatza egin zen eta 24-25ean bete betean gaude proposamena osotasunean ixteko prozesuan.

### 5.2. Ikastetxeko zein kanpoko jardueretan euskararen erabilera sustatzeko irizpide orokorrak.

Ikastetxeko jardueretan euskara ardatz izaten da beti. Kanpotik ekintzak edo tailerrak eskaintzen dituztenean ere, euskararen presentzia bermatzen dugu ia

beti, salbuespenak salbuespen. Hori dela eta, ondorengo ekintzak eramaten dira aurrera:

- Kanpoko eragileekin hartu-eman euskaraz egiten da. Familiei eskolatik kanpo euskaraz duen garrantziak hitz egiten zaie eta kanpoko ekintzak ere euskaraz hautatzera animatzen zaie, euskararekiko harremana ere ludikoa izateko eta ez soilik akademikoa.
- Familia bileretan euskararen presentzia bermatu egiten dugu. Kontuan izanik familia gehienek ez dutela euskara ulertzen, aurkezpenak bi hizkuntzetan egiten dira eta azalpenak ere bi hizkuntzetan egiten dira, euskarari protagonismoa emanez betiere.
- Eskolako komunikazio estiloan jasota dago euskararen lehenestea web orrialdea edota Telegram bezalako sareetan. Familiekin harremana askotan Telegram bitartez izaten da eta mezu hauetan ere euskararen presentzia bermatzen dugu, mezua bi hizkuntzetan bidaliz eta euskarari lehentasuna emanez. Agurrak euskaraz egiten saiatzen gara, komunikazio hizkuntza edozein dela.

### 5.3. Hizkuntzen ikaskuntza zeharka integratzen duten ikuspegi metodologikoak zehaztea.

Hauek dira hizkuntza zeharka integratzeko erabiltzen diren jardueretako batzuk.

- Irakurketa dialogikoa. Ipuin baten irakurketan oinarrituta, umeen interakzioa bilatu galderen bitartez ipuina beraiek kontatzeko (HH).
- Ipuinen kutxak. Ipuin bat modu ezberdinetan kontatzeko aukera ematen duen baliabideen kutxa (HH).
- Olerki musikatuak. (HH)
- Kontzientzia lexikoa: piktogramen bidez esaldiak egituratzea. Modu honetan euskarazko egiturak barneratu, hitzegia ikasi eta adierazpena lantzen da.
- Euskara sustatzeko eta hizkuntzarekiko harreman ludikoa sortzeko dinamika. Urtero egingo da eskola osoa inplikatzeko euskara dinamika bat. Horien martxan jartzeko denbora tarteak ezberdina izan daiteke. (LH).

#### 5.4. Berandu sartzen diren ikasle atzerritarrak artatzea eta haien hizkuntza arreta.

Berandu sartzen diren ikasleei hizkuntza-arreta emateko hurrengoak erabiltzen dira:

- HIPlarekin saio ezberdinak ateratzea. Posible denean, maila edo ziklo berdineko ikasleak hartzen dira ikaskuntza prozesua probetxagarria izateko.
- Gelan erabiltzen diren baliabideak euskaraz eta ikaslearen hizkuntzan jarriko dira, behar denenean gelako erritmoa ahalik eta ondoen jarrai dezan. Modu berean, edukiak modu sinpleago batean aurkeztuko zaizkio eta eboluzioaren arabera egokitzen joango dira.
- Gelan, hizkuntza bera duten ikasleekin jarriko dira atzerritik etorritako ikasle berriak, haien eguneroko hizkuntza beharrak asetzea lagunduz.

#### 5.5. Irakasleen prestakuntzarako irizpideak, haien hizkuntza gaitasuna hobetzeko eta hizkuntzak irakasteko alderdi metodologikoetan trebatzeko.

Irakasleen hizkuntzen gaitasunen hobekuntza eta hizkuntzak irakasteko alderdi metodologikoetan trebatze aldera, honako irizpide hauek dira kontuan, formakuntzak hautatzerakoan:

- Bai irakasle, bai ikasleen komunikazio gaitasuna hobetzeko tresnak emango dituzten formakuntzak sustatuko dira.
- Irakasleen jakintzak eta gaitasunak erabilia barne-formakuntza antolatuko da irakaskuntza eraginkorrago bati begira.

## 6. Elkarbizitza erabakiak

### 6.1. Ikastetxearen lidergoa, antolaketa, funtzionamendua eta kudeaketa

#### Zuzendaritza taldeak/ planak

Zuzendaritza proiektua aurrera eraman zuen zuzendaria dago buru. Proiektua 26-27 ikasturtean bukatuko da. Bidean, zuzendaritza taldearen ikasketa burua eta idazkaria aldatu dira (24-25 ikasturtean). 22-23 ikasturtetik Berrikuntza Arduraduna ere izan du eskolak, 23-24 lan hori egiten zuen pertsona aldatu zelarik.

#### Maisu-maistrak / Irakasleak

24-25 ikasturtearen hasieran honako hau da gure klaustroaren osaera:

	Jardunaldi murriztua	Jardunaldi osoa
HH tutoreak	2	7
LH tutoreak	4	13
Laguntzak	2	1
PTak	2	7
ALE	1	1
Aholkularia	1	0
Gorputz Hezkuntza	2	1
Musika	0	1
Ingelesa	1	2
HIPI	2	1
Hezitzaileak	2	6

Guztira 51 irakaslek eta 8 hezitzailek osatzen dute aurtengo klaustroa. Hala ere, ikasturtean zehar kopuru hau asko aldatuz doa, murrizketa berriak edo baliabide osagarriak agertu ahala.

Irakasle guzti hauetatik 21 irakasle daude eskolan finkatuta baina interinitatea bereziki kaltegarria da tutoretzei dagokienez, 9 baino ez dira finkoak.

### Familiak

Familiak organo ezberdinen bidez dute eskola erabakietan parte hartzeko aukera:

- Gela bakoitzeko familien ordezkari bat dago. Familia horiek behar denean elkartzen dira zuzendaritzarekin hainbat gai jorratzeko. Gainera familia horiek gelako gurasoen ordezkari rola betetzen dute.
- OOG. Hauteskundeen bitartez aukeratutako familiak parte hartzen dute eskolako irakasleekin eta zuzendaritza taldearekin batera.
- Guraso elkarteak. AKEISE izeneko Guraso Elkarteak dugu, eskolako ekintza berezietan parte hartzen duena eta eskolaz kanpoko jarduerak antolatzen dituena.

### Eraikinak

Eskolak eraikin nagusi bat eta gimnasioa dauzka. Kanpoko espazioa 3 patioetan banatuta dago eta horietako bat estalita dago.

Eraikin nagusia 3 solairutan antolatuta dago.

- 0. solairua: zuzendaritza, atezaintza, irakasle gela, psikogela, jantokia eta HH2 eta HH3ko gelak.
- 1. solairua: liburutegia, fotokopiagailu gela, ALE gela, PT gela, ingeles gela, musika gela, HH4, HH5, LH1 eta LH2.
- 2. solairua: HIPI gela, hezitzaileen gela, garbitzaileen gela, aholkulariaren gela, PT gela, informatik gela, gela egonkorra, LH3, LH4, LH5 eta LH6.

Antolaketa hau urteko beharren arabera moldatzen da, baina azken urteetan espazio aldetik justu gabilta ditugun tutoretzengatik baldintzatuta.

### Formazio Plana

Kurtso hasieran antolatzen da eskolako beharren arabera. Gure eskolako egonkortasun falta dela eta lehentasuna eman behar diegu egiten diren barne formakuntzei, bereziki lehenengo hiruhilabetean. 2024-2025 ikasturtean hauek dira aurreikusitako formakuntzak:

- Lehen sorospenak.
- HH. Psikomotrizitatea.
- HH. IRALE. Mugimendu autonomoan hizkuntzen lanketa.
- LH. IRALE. Ikas-egoera edota proiektuetan hizkuntzaren ikuspegia.
- LH. Ikas-egoerak aberasteko barne saioak.

Horrez gain Berritzeguneak eskainitako beste praktika komunitate batzuetan parte hartuko da: Proiektu Globalizatuak PKP, Ebaluazioa PKP, Hezkidetz Mintegia, Ulibarri Mintegia, ADI Mintegia, PT Mintegia, Musika Mintegia eta Mugimendu Autonomoari buruzko mintegiak.

### Digitalizazioa

Aurreko urteetan eskainitako formakuntzei esker egonkortuta dagoen irakasleoa B2 digitalizazio maila izatea lortu da.

Ikasturte honetan ADI mintegian parte hartuko da, robotika, programazioa eta pentsamendu konputazionala eskolako programazioetan nola sartu erabakitze eta beharrezkoa den materiala erosteko.

HHn pantailen erabilera oso mugatuta dago, adituen gomendioetan eta eskolako hausnarketa pedagogikoan oinarrituta.

LHtik aurrera baliabide digitalak inkluitzen dira progresiboki. 1. eta 2. mailatan ordenagailuak erabiltzen dira INNOVAMAT saioak aurrera eramateko, eta 3. mailatik aurrera, ikas-egoeretakoko ekintzetako batzuk gailuekin ere egiten dira. Horrez gain, 3. zikloan Classrooma erabiltzen da.

Irakasleei dagokienez, baliabide digital anitz erabiltzen dira nagusiak hauek direlarik:

- DRIVE: eskolako dokumentu gehienak bertan daude denen eskura.
  - Ikas egoerak: ikas-egoeren programazioa.

- Irakasle koadernoak: ebaluazioan laguntzeko tresna.
- CANVA: materiala sortzeko erabilitako tresna nagusia da.
- Telegram: irakasleen artean eta familiekin harremantzeko tresna.

Horretaz aparte Ikastetxeko Digitalizazio Plana idatzita dago eta urtez urte helburuak berrikusten eta berrizten dira.

### Proiektuak

Eskolan dauden proiektuen artean honako hauek topatzen ditugu:

- Mugimendu Autonomoa.
- STEAM Proiektua.
- Hizkuntza Proiektua.
- Ikastetxeko Proiektu Digitala.
- Irakurketa Estrategia.
- Bidelaguna Proiektua.
- ADI programa

Urtez urte proiektu hauek aldatzen doaz ikastetxeak dituen beharren eta errealitatearen arabera.

### Antolaketa

#### **Ordutegia:**

- Iraila eta ekaina: 9.00-15.00
- Urritik maiatzera: 9.00-13.00/ 15.00-16.30 (astelehena, asteartea, osteguna eta ostirala) 9.00-15.00 (asteazkenak).

#### **Formazioak**

- Asteazkenetan: 13.00-15.00

### **6.2. Bizikidetzak eta hezkidetzak**

Elkarbizitza arloan azken urteetan hartutako erabakiekin eta hauen emaitzeko pozik gaude eta eskolan dagoen aniztasuna kontuan hartuz indargunetako bat dela esango genuke.

Hezkidetza arloan, Hezkidetza Plana berrizteko bidean gaude. Gainera, hezkidetza arloan garrantzitsuak diren egunetan ekintza ezberdinak bideratzen dira: emakumearen eguna, homofobiaren kontrako eguna, arrazismoaren kontrako eguna.

Besteak beste, hauek dira gure eskolako elkarbizitza eta hezkidetza bideratzen duten organoak:

- BAT taldea.
- Elkarbizitza behatokia.
- Bizikidetza batzordea.
- Ikasle Asanblada.

### 6.3. Ikastetxeko jasangarritasunaren inguruko erabakiak.

Jasangarritasun arloan hobetzeko asko identifikatzen ditugun arren, hauek dira momentu honetan hartzen diren neurrietako batzuk.

- Eskolako argiak LEDak dira.
- Uraren kontsumoa kontrolatzeko neurriak.
- Geletan birziklatzeko ontzi ezberdinak.
- Erosketak ahalik eta jasangarrien egiteko protokoloa.

### 6.4. Gizartearekin eskola harremanak: testuinguruarekin hartu emanak.

Hauek dira eskolaz kanpoko beste erakundeekin martxan dauden harremanetako batzuk:

- Eskolan aurrera eramaten diren proiektuen arabera, herriko hainbat komertzio, zerbitzu eta egoitzekin harremanetan dago eskola.
- La Benedicta igerilekuak. 3. eta 4. mailako ikasleak La Benedictako igerilekura joateko akordioa dago udal-programa baten barruan.
- Artizar. Sestaon dagoen proiektu hezitzailea eta gizarteratzailea da. Egoera zail eta gogorretan bizi diren neska-mutil eta nerabeentzat sortua, hauen gaitasun pertsonal, sozial, afektibo eta familiarrak berreskuratu eta indartzeko asmoz. Eskolako ikasleen begiraleekin jarraipena egiten da.

- AEK. Euskarari loturiko ekimen ezberdinetarako harremanetan egoten gara.
- Liburutegia. Irakurketa sustatzeko hainbat jarduera egiteko liburutegiarekin harremana dago, umeak liburutegiko karneta izatea bermatzen delarik.
- Udalak sustatutako saio kulturalak. Udalak antolatutako hainbat ekitaldietara gonbidatzen gaituzte eta ahal den neurrian horietan parte hartzen da.
- Musika eskola. Musika eskolak antolatutako edota musika eskolan antolatzen diren hainbat ekintzetan parte hartzen du eskolak.
- Sestaoberri. Azkeneko urteetan Sestaoko ondare kulturala eta industrialak berreskuratzeko antolatzen diren hainbat ekintzetan parte hartzen da.
- Osasun zentroa. Erizainak sexu hezkuntzaren inguruko tailerrak ematera etortzen dira 6.mailakoei.
- Nagusien egoitza. Ekintza ezberdinetan bertaratu gara: agate deuna, eskolako proiektuak...



## 7. Berrikustea eta komunikazioa

### 7.1. IHParen komunikazio eta hedapenerako zehaztapena

Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua egin ondoren, klaustroari eta OOGari aurkeztuko zaie onartua izateko eta hezkuntza komunitatearen esku jarriko da eskolako web orrialdearen bidez.

### 7.2. IHPa berrikusteko plana

Hezkuntza Proiektu honek ikastetxeko oinarriak finkatzen dituen urtero berrikusiko da batez ere esparru nagusi hauetan arreta finkatuz:

- Oinarrizko datuak.
- Erabaki curricularrak.
- Elkarbizitza erabakiak.

Berrikusketak hauek urtero lehenengo hiruhilabeteetan egingo dira eta zerbait aldatzekotan berriro ere onartuko dira aldaketak aipatutako organoen bidez.